

## Petroputreak



MIKEL OTERO  
DIPUTATUA

**2**026a gogor hasi da. Hiru egun baino ez, eta zapla, Estatu Batuek Venezuelan “erabaki irmoa” operazioa abiatu, jende andana erail, presidentea bahitu, eta protektoratu antzeko zerbait zirriborratu dute, bihar-etzi gertatuko dena argitu gabe. Operazioaren zaleek “Chavismo gaiztoaren” amaiera egintzat jo bazuten ere, bestelako lehentasunak daude. Tartean, azken bi hamarkadetan estatuaren esku eta, zigorrak tarteko, gainbeheran egon den petrolio ekoizpenaren kontrola eskualdatu eta berpiztea, antza.

Trump ahoberoak petrolio ozen aldarrikatzeaz gain, astea pasa aurretik petrolio enpresekin bildu da, belatz amerikarren harrapakinen mamiak lortzeko karraskari nahikorik ote dagoen egiaztatzeko. Tartean, Josu Jon Imaz, Repsolen ordezkaria. Kroniken arabera, gogo biziena bera, estatu burujabearen gainetik inperioaren oinetan makurtzeko prest.

Energiaren ikuspuntutik, mezu kezkarriak. Bat, epe luzerako operazioa da. Hainbatek azaldu duten moduan, egun merkatuak ez du petrolio gose itzelik. Eskaintzak eskaria gaintitzen du eta upelak nahikoa lan du 60 dolarren langari eusten. Venezuelako petrolio, gainera, astuna eta ekoizteko garestia da, prezio merke testuingururako desegokia. Frackingaren petrolio arinarekin nahasteko

ona da, baina kanadar hondar bitumino-soek egiten dute jada funtzio hori. Gakoa, hortaz, gaur ekoizpena handitzea baino, bihar nork eta nola eskuratuko duen ebatzea da. Alegia, planeta frijitu dezakeen urte beltzaren merkatariak argi luzeak piztuta dabiltza.

Aurrekoari lotuta, bigarren egiaztapea. Faxismo fosilak ez du amore emateko asmorik. Trump administrazioa buru eta *manu militari*, diktadorea nor den kolaborazio mailaren arabera erabaki; geopolitika fosilei lotu, eta trantsizioa oztopatu, *berriztagarriak itsusiak dira* gudu-oihupean. Asmoa, noski, petro-estatuak (ekoizle zein menpeko) betikotzea. Badira bestelako aukerak: Txina, elektro-estatu izateko bidean. Urte gutxian ekonomia %10etik %32ra elektrifikatuta. Auto salmenta, erditik gora elektrikoa. Milioika lagun hirietako autobus eta taxi flotak ere bai. Petro-menpekotasunari aurre eginez.

Gu? Faxismo fosilaren dantza makabroaren menpe, askatzeko irmotasunik gabe. Aukerak hautatutako desazkunde alaia edo kapitalismo berdea ote diren eztabaida antzuan galduak, petrolio mafien “erabaki irmoek” amildegira garmatzatela erreparatu gabe. Erremedioa, menpekotasun energetikoa arintzea. Eta hori, badakigu nola egiten den. ●

## Zurztasun linguistikoa



CASTILLO SUAREZ  
IDAZLEA

**D**uela hilabete batzuk, Espainiako argitaletxe batek proposatu zidan nire poema liburu bat argitaratzea. Gaztelaniaz nahi zuten, eta azaldu behar izan nien ez zela nire buruan sartzen euskaraz ez den hizkuntza batean idaztea. Ulertu zuten nonbait, itzulpen bat argitaratu zutelako azkenean, baina behin eta berriz eskatu zidaten poema argitaratu gabeak gehitzea, gaztelaniazko irakurleak saritzeko nolabait. Eta horrela plazaratu zen liburu azkenen, *bonus track* batekin, alegia. Lerro hauek idazten ari naizenean Chus Pato poeta galiziarra aurkitu dut aireportu batean, eta barre egin dugu, Cagliari-ra noalako ni eta bera Calgary-ko elurteei buruz

ari zaidalako galdezka. Burutara etorri zait bere poema zati bat: *Nire jatorrizko hizkuntza faxismoa da*. Patok gaztetatik zekien poeta izanena zela eta galegoz idatziko zuela. Izan ere, ama hizkuntza bat oso zaila da erazuten. Askotan esaten du bere ama hizkuntza galegoa dela, nahiz eta bere gurasoek erakutsi ez. Izan ere, amonak galizieraz hitz egiten zuen, eta gurasoek beren artean ere bai, baina seme-alabei gaztelaniaz hitz egiten zieten, arazorik ez izateko. Hortaz, bere ama hizkuntza halako zurztasun linguistikoa bat da, ez amak ez eta aitak ere ez baitzuten inoiz gaztelaniaz ondo egin. Ama hizkuntza ez baita beti biologikoa, historikoa ere izan liteke. ●